


Euskal AEko eraikuntza-kostuak %0,2 gehitu ziren 2019ko martxoan aurreko hilaren aldean

2018ko martxoaren aldean %2,5 gehitu ziren

2019ko martxoan, Euskal AEko Eraikuntza kostuen indizea %0,2 gehitu zen aurreko hilaren aldean, eta urte arteko tasa %2,5 igo zen, Eustaten datuen arabera.

Euskal AEko eraikuntzako kostuen indizearen urte- arteko aldakuntza-tasa. (%)



Iturria: Eustat. Eraikuntzako kostuen indizea

Aurreko hilaren aldean, lan-eskuaren kostua lehengoan da (%0,0); lehengaien kostuak %0,2 gehitu dira.

Etxegintza %0,2 gehitu da martxoan; Obra Zibila, %0,5. Urte artean, Etxegintzan lehengaien kostuak %2,3 gehitu dira eta Obra Zibilean %3,9.

Sektoreak kontsumitutako lehengaietan urte artean (2019ko martxoa 2018koaren aldean) prezio-hazkunderik handienak: *Petrolioia fintzea* (%12,8), *Energia elektrikoa eta gasa* (%5,3) eta *Mineral ez-metalezkoak* (%4,1). Alderantzizko norabidean, lehengaietan murrizketa handienekin edo hazkunde txikienekin azken hamabi hiletan: *Metalurgia*, behera %3,7 egin duena; *Kautxu eta plastikoa*, %0,2ko igoerarekin; eta *Material elektronikoa*, %0,4ko igoerarekin.

1. TAULA. EUSKAL AEKO ERAIKUNTZAKO KOSTUEN INDIZEA. ALDAKUNTZA TASAK (p). 2019ko Martxoa

	INDIZEA	ALDEAREN %		
		m/m-1	m/m-12	m/abendua
GUZTIRA	105,0	0,2	2,5	1,9
Eraikinak	104,9	0,1	2,3	1,8
Obra zibila	105,5	0,4	3,5	2,5
LEHENGAI	104,6	0,2	2,6	1,8
Eraikinak	104,4	0,2	2,3	1,7
Obra zibila	105,3	0,5	3,9	2,6
LAN-ESKUA	106,2	0,0	2,3	2,3

Oinarria 2015=100
 (p) behin-behinekoa

Iturria: Eustat. Eraikuntzako kostuen indizea

Ohar metodologikoa: 2019ko martxoan zehar aldatu da Industri Prezioen Indizeak (IPRI) zerabilen oinarri-urtea, oinarria Eraikuntza Kostuen Indizea egiteko (EKI). Oinarri berrian, IPRIren eta EKIren erreferentzia 2015. urtea da. Oinarriaren aldaketak ekarri du eguneratu dela enpresa informatzaileen ordezkatzeko-panela, hala nola haztaperen-egitura desagregazio-maila guztietarako.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
 Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz
 Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62